

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 1573/2020 FORU AGINDUA, uztailaren 24koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 14ko 71/2020 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzen dituena. Foru dekretu horren bidez, onesten baitira 2020ko ekitaldian Bizkaiko kultura zabaltze aldera egiten diren ikus-entzunezko dokumentalen ekoizteko dirulaguntza foralen oinarriak eta deialdia.

Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 14ko 71/2020 foru dekretuaren bidez, onesten baitira 2020ko ekitaldian Bizkaiko kultura zabaltze aldera egiten diren ikus-entzunezko dokumentalen ekoizteko dirulaguntza foralen oinarriak eta deialdia (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 141. zenbakia 2020, uztailak 24. ostirala).

Foru dekretu arautzaile horren 11. oinarrian honakoa ezarri da: aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Saileko foru diputatuak izendatuko ditu, foru-agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

Oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 foru dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 14ko 71/2020 Foru Dekretuaren babesean (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 141. zenbakia 2020, uztailak 24. ostirala), aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea eta proposamena egitea eta hura Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputaturi aurkeztea, behin betiko ebazpena eman dezan. Epaimahaia honakoek osatzen dute:

- Epaimahaiburua:
 - Andoni Iturbe Amorebieta
Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendari Nagusia.
- Ordezko epaimahaiburua:
 - Xabier Arauzo Uriarte
Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Zuzendari Nagusia.
- Epaimahaikide titularrak:
 - Arantza Cuesta Ezeiza (Eusko Ikaskuntzako zuzendaria).
 - Vanesa Fernández Guerra (Zinebi zuzendaria. Euskal Herriko Unibertsitateko Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultateko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea saileko irakaslea).
 - Montserrat Petralanda Gorrotxategi (Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Ataleko Burua).



— Ordezko epaimahaikideak:

- Koro Muro Arriet (Eusko Ikaskuntzan proiektuen arduraduna).
- Josu Amezaga Albizu (Euskal Herriko Unibertsitateko Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultateko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea saileko irakaslea).
- Mikel Etxebarria Etxeita (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuko Burua).

— Idazkaria titularra, botorik gabe:

- Mikel Murillo Aurrekoetxea (Teknikaria kultura-proiektuen zuzendaritzan).

— Ordezko idazkaria, botorik gabe:

- Ana Sanchez Díaz (Kultur Ekintzako Goi Mailako teknikaria).

Bigarrena: Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuari ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena: Agintzea foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.— Indarrean jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru-agindu hau.

Bilbon, 2020ko uztailearen 24an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA